

< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^
< RESIDENCIAS ^
< EGOITZAK ^
< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^
< > ^ > v < ^



OB SKENA

2018 / Deialdiaren itxiera:
uztailak 20

II
Huarte



Uharte Zentroak bi egoitza eskaintzen ditu, 6/8 aste bitarteko iraupena izango dute eta bata, bertako artista edo kolektibo bati zuzendua dago (Nafarroan jaiotakoa edo bizi dena), bestea, Estatuan bizi den artista edo kolektibo bati zuzendua.

Proiektuek eszenikoa edo gorputz adierazpena egunean dauden gizarte mugimendu eta politikoekin harremanean jarri beharko dute: feminismoa, adierazpen askatasuna, deskolonizazioa, lankidetzakomunitatean, artea herrira gerturatzea, afektu politikak, ekonomia bir pentsatzea, ekologia, etab.

Ob Skena (eszenatik at) eszenatoki baten erakutsi ohi ez dena eszenara gerturatzeaz datza, ikusgaitasunaren mugatik haratago. Era berean, eszenikoaren zabalkundea ematea eta mota guztietako praktika artistikoak bere baitan hartzean datza, esaterako, proposamen eszenikoak, instalazio, arte komunitario, digital edo interaktibo gisa ere adieraztean.

Bertako artistak eta kanpokoak astebetetz kointziditu dezaten saiatuko gara, elkarreragina sor dadin, jakintza eta praktiken trukaketarako. Lana publikoaren aurrean elkarrekin aurkezteko ere data komun bat jarriko da.

Ikerketaren aurkezpena ekitaldi gisa egin beharko da, eta hainbat formatu erabili ahal izanen dira horretarako: hitzaldi performatibo bat, koreografia bat, ikusleekin elkarrekintza jolas proposamen bat, erakusketa eta bideo bidezko azalpenak, ildo batzuk emanez ibilbide bat, etab. artistek eztabaidagai izan dituzten ideiak entzuleen eskura jartzeko.

